



# **2020-2021 IKASTURTEAREN ANTOLAKUNTZA**

## **HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN**

### **HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA**



## AURKIBIDEA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA. 2020-2021 IKASTURTERAKO HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 3

<b>1. ZATIA:</b> .....	<b>6</b>
<b>1.- HEZKUNTZA ANTOLATU ETA PLANIFIKATZEKO OINARRIZKO DOKUMENTUAK</b> .....	<b>6</b>
1.1.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP) .....	6
1.2.- IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHP) .....	11
1.3.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK .....	12
1.4.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK .....	12
1.5 BIZIKASI EKIMENA .....	12
1.6.- PROTOKOLOA, HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTEKO, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKOA .....	14
1.7.    IKASTETXEENTZAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEXUALEI EDO ARAUTIK KANPOKO GENERO- PORTAERA DUTEN IKASLEEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO .....	14
<b>2. IKASLEAK</b> .....	<b>14</b>
2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA .....	15
2.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEAK (HLBP) .....	15
2.3. ARRETA GOIZTIARRA .....	19
2.4. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO OINARRI OROKORRA	19
2.5. ESKOLA-ORDUTEGIA .....	20
2.6. IKASLEAK IKASGELARA BERTARATZEA .....	20
2.7. ERLIJIOA .....	20
2.8 IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK. ....	20
<b>3.- IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK</b> .....	<b>22</b>
3.1.- IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA .....	23
3.2.- HEZKUNTZA-ERREFORTZUA .....	23
3.3.- ZUZENDARITZA TALDEA.....	24
3.4- ANIZTASUNA IKUSPEGI INKLUSIBO BATETIK LANTZEKO BERARIAZKO IRAKASLEAK .....	25
3.5 ZIKLO/ETAPA TALDEAK .....	26
3.6 IRAKASLE TUTOREEN ZEREGINAK .....	27
3.7. BERARIAZKO LANGILEAK .....	29
<b>4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK</b> .....	<b>30</b>
<b>2. ZATIA</b> .....	¡Error! Marcador no definido.



## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA. 2020-2021 IKASTURTERAKO HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

### SARRERA

Covid-19 pandemia hedatzean sortu den larrialdi-egoerari Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-komunitatearen multzoak eman dion erantzuna antolakuntza-esperientzia gogorra izan da Sailaren eremuan eta ikastetxeetan, irakasle taldeentzat eta irakasle bakoitzarentzat.

Jarduera ez-presentzialaren ondorioz, inplikaturako pertsonak areago ezagutzen ditugu eta, horretan oinarrituz, beharrezkoa da etorkizunean gerta daitezkeen antzeko egoeretara prestatzea.

Hezkuntza ez-presentzialaren aldian, agerian geratu da interneteko hezkuntzak ezin duela eskolako norbere esperientzia ordezkatu, baina ikasketei eusteko funtsezko elementu bat da. Online-ikasketen ahalmen osoa behar bezala garatzeko, beharrezkoa da tresna didaktikoak izatea, azpiegiturak eta irakasleen ezagutza hobetzea eta sistemako ikasle guztiak konektatuta egongo direla segurtatzea.

Azken urteotan, ikastetxeek eta irakasle taldeek, Hezkuntza Sailaren laguntzaz eta aholkularitzaz, askotariko Zuzendaritza eta laguntza-zerbitzuen, Berritzegune eta Ikuskaritzen bitartez, ahalegin handia egin dute ikastetxeak digitalizatzeko eta irakasleak informazio eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko.

Askotariko jarduerak eta proiektuak garatzeko guneak sortu dira, eta *Ikasgunea* atarian bildu dira, bitarteko onena baita ikastetxeen, irakasle talde, ikasle eta familien arteko komunikazioa kudeatzeko. Atari horretan, familia-ikastetxe komunikazioa ez ezik, Sailaren jardun-ildo lehenetsiekin bat datozen hainbat bitarteko bildu dira, adibidez, STEAMgunea, Irakurgunea, Bizikasigunea eta, oraindik orain, AMARAUNA webgune semantikoa gehitu da: etapa eta maila guztietarako dokumentu eta material didaktikoen biltegi bat. Webgune horrek, askotariko iturrietako materialak eskaintzeaz gain, balio du EAEko irakasleek eta beste askotariko aholkularitzek sortutako materialak partekatzeko.

Bertan, halaber, ikasketa-kudeaketako prozesu ia guztiak egin daitezke dagoeneko bitarteko digitalen bitartez, adibidez, matrikulazioa, EED, eskola-egutegia, bertaratzearen eta noten kudeaketa, espedienteak eta tituluen kudeaketa.

Esan daiteke, beraz, EAEko hezkuntza-sistema prest dagoela eskolatzeko-forma berriei aurre egiteko, hala hezkuntza presentzialerako, nola urrunekorako edo mistorako. Zalantzarik gabe, ahalmen hori erabakigarria izango da hurrengo hilabeteetan pandemia-egoera berri bat gertatuz gero zirkunstantziak arrakastaz gainditzeko.

Metodologiaren aldaketa bat beharrezkoa da, ikasleetako guztien banakako ikasketan oinarritua, elkarrekintzak bultzatuko dituzten lankidetzak-formulak baliatzen dituena, ikasle bakoitzak aurrerabidea izango duela segurtatzeko, pentsamendu kritikoa eta sormena zein arazoak ebazteko eta egoera berrietara egokitzeko ahalmena garatzeko, baita taldeko gainerakoekin elkarrekintzan



aritzeko eta jomuga komunak lortzeko konpetentzia ere bultzatzeko; horrek hobetu egingo luke emozioen kudeaketa, talde-gogoaren garapena eta kide-tza-sentsazioa.

Ikasleak ez daude ohituta irakaskuntza-ikasketa ez-presentzialeko modalitateetara, baina protagonismo gero eta handiagoa hartuko dute zirkunstantzia hauetan, eta hor garrantzi berezia dute autonomia pertsonalari lotutako zeharkako oinarritzko hezkuntza-gaitasunak bultzatzeak eta motibazio intrintsekoaren garapenak.

Bukatzeko, aurtengo martxotik bizi izan dugun ezohiko egoera ikusita, ikasturte berria antolatzeko oinarritzko alderdiei buruzko ikastetxeen gogoetek eta erabakiek puntu hauek hartuko dituzte kontuan: Sailaren webgunean argitaratu eta gordetako agirietan bildutako erreferentzietako batzuk, baita Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako proposamenak eta ikastetxe bakoitzari egokitutako Jarduketa eta Kontingentzia Protokolo bat edukitzeko beste erreferentzia testuinguratuago batzuk ere, SARS-CoV-2 birusa berriz agertuko balitz Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako ikasle guztiek hezkuntza-eskubidea bermatua izan dezaten.

2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekoan, osasun-larrialdiko egoera batean egon gara, eta hasiera batean, horregatik, bertan behera geratu da irakaskuntza-jarduera presentziala eta, gero, higie-ne eta segurtasun-neurri sorta bat hartu behar izan da, betiere osasun-irizpideekin eta osasun-jarraibideei lotuz. Ikasturtearen amaieran, pixkanaka normaltasunera itzultzeko prozesu bat bizi izan dugu, bilakaera sanitarioko testuinguru batean. Era horretan, baimentzen joan dira aurrez aurreko jarduerak lehengoratzea, normaltasun-egoera batera heldu arte, baina beti baldintzak gogortzeko aukerari erne, birusaren bilakaera hala eskatuko balu, gure Osasun sistemaren tutoretzapean.

Hori guztia kontuan hartuta, ebazpen hau aldatu egin da, *2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronabirusaren (sars-cov-2) aurrean Jarduteko Protokolo orokorraren* dokumentuan jasotako erreferentziak oinarritzat hartuta, eta haren egitura ahalik eta gehien sinplifikatzen saiatu da:

- Ez dira bertan sartzen beste esparru batzuetan arautzen diren uneko araubideen alderdi edo erreferentzien detaile guztiak, 2019-20 Ebazpeneko bertsioa Sailaren web-orrian mantenduko baita, haien inguruko beharrezko kontsultak egin ahal izateko. Dena den, adierazgarrienak sartu dira.
- Ikasturte-hasieran normaltasuna aurreikusten duen egoera bati lotutako alderdi adierazgarrienei erreparatzen dien Ebazpen bat aurkezten da.
- Eranskin bat gehitzen da, ikasturte berria planifikatu eta antolatzeko baliagarriak izan daitezkeen bitarteko erreferentziak biltzen dituena.

Protokolo horrek kontuan hartu beharreko hiru egoera aurreikusten ditu:

- **1. agertokia:** aurrez aurreko irakaskuntza-jardueraren garapen normalizatua dakar.
- **2. agertokia:** bitarteko egoera bat, ikastetxeak irakaskuntza-jardueraren antolamendu malgu batera behartzen dituena, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta



aldi berean egin ahal izateko, etapa, ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsiz.

- **3. agertokia:** konfinamendua eta hezkuntza-jarduera ez-presentziala eskatzen ditu.



## 1. ZATIA:

### 1.- HEZKUNTZA ANTOLATU ETA PLANIFIKATZEKO OINARRIZKO DOKUMENTUAK

#### 1.1- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP)

Aurtengo ikasturtearen plangintza egiteko arlo lehenetsiei dagokienez, alderdi hauexek hartu behar dira kontuan:

- **Euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia**
- **Konpetentzia digitala**
- **Programazioak curriculumaren eta haren ebaluazioaren funtsezko alderdietara egokitzea.**
- **Bizikasi ekimenean kokatuta, emozioen arloa lantzea**

Kontuan hartuz hezkuntza-jarduera inklusio-testuinguru batean garatzen dela, garrantzi berezia du beste batzuetan baino xehekiago ezagutzea ikasle bakoitzaren konpetentzien lorpen maila zein den eta **horiek eskuratzeko zer laguntza- edo errefortzu-beharrizan dituen.**

Halaber, aztertu egin behar dira askotariko arrazoiak direla-eta konfinamendu-etapan ikasleekin edo haien familiarekin komunikazio egokia lortu ez delako bereziki bihurriak izan diren egoerak. Beharrezkoa izango da datu horiek eskuratzeko eta, **osasan-larrialdiko egoera bat suertatuz gero, erantzun bat emateko formula zehatzak aurreikustea.** Alde horretatik, **material digitalak prestatu eta erabiltzea lehenetsun bat da, erabakiak hartu beharko dira haren gainean, eta horiek Urteko Planean bilduko dira.**

Ikastetxe bakoitzak bere Urteko Planean berriazko atal bat sartuko du *Ikastetxeek COVID-19ren aurrean dituzten Jarduera Estrategiak* planifikatzeko, hezkuntza-jardueraren garapenean neurriak hartzea ekarriko duen berragertze bat gerta daitekeela aurreikusiz.

#### a) Irakaskuntza-jardueren programa

Lehenetsun gisa maila eta arlo bereko **programazioaren egokitzapenera** zuzendutako erabaki espezifikoak bildu beharko ditu, 2019-20 ikasturtean lortu den maila kontuan hartuz eta arreta funtsezko elementuetan jarriz. Ikus erreferentzia eranskinean: Lehen Hezkuntzako etaparako *Curriculumeko funtsezko alderdiak.*

Erabaki horien bidelagun, **ikasleen ebaluazioa egiteko modu desberdinak aurreikusi beharko dira.** Alde horretatik, beharrezkoa izango da estrategia desberdinak lantzea, ikasleen etengabeko eta prestakuntzaren ebaluazioan sakontzeko. **Iraila** funtsezko hilabetea izango da ikasleek duten egoeraren diagnostiko bat egiteko. **Hasierako ebaluazio bat egin behar da,** ikasturte berri bakoitzerako behar diren funtsezko alderdiei buruz ikasle bakoitzaren abiapuntua oinarritzat hartzen duena.



Lortutako informazioan oinarrituz, **laguntza- eta errefortzu-ekintzak** antolatu beharko dira ikasmila igo badute ere ikasturte berrirako aurreikusitako programazioari dagokionez zailtasun zehatzak agertzen dituzten ikasleentzat.

**Metodologia**-jarraibide eta -orientabideei dagokienez, ikasleak inplikarazi behar dira informazio, gogoeta eta ezagutzaren aplikazio eta ezagutzean. Ziurgabetasun-egoeretan eta aldaketa-prozesuetan ikastea, berez, oinarritzko gaitasunak garatzeko baldintza da, eta, kasu honetan, aukera paregabea da ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko. Ikasleen arteko elkarrekintzak edo lanak biltzen dituzten proposamenak bultzatuko dira, Euskadiko Eskola Kontseiluak gomendatzen duen bezala. Testuinguru honetan, aukera baliatuko da harreman-testuinguru malguagoak eta proposamen sortzaileagoak sortzeko eta gaitasun komunikatiboen eta digitalen sarea hobetzeko. Baliabide teknologien eta ikasgelaren konbinazioak ikasketa hobetu dezake, ikasketaren erritmoaren pertsonalizazio handiagorako modua ematean. Gainera, eduki espezializatua eskuratzeko bidea ematen du ikasgelatik kanpora, eta lankidetzaz bidez ikasteko modua ematen.

Nabarmendu da **aldameneko ikasmiletako irakasle taldeek koordinazio-lana egin behar** dutela (eta bereziki etapaz edo ikastetxez aldatzean) programazioen diseinua ikasleen beharrezanekin bat etor dadin, gogoan hartuz betiere irakaskuntza ez-presentzialak zer-nolako ondorioak utzi dituen.

Irakaskuntza-jardueren programak ikastetxera bertaratzeko lehen hilabeteetan jarduerak bildu behar ditu **ikasleekin konpetentzia digitalak lantzeko, beste osasun-larrialdi egoera bat sortuz gero jarduera internetez etxetik jarraitzeko modua izan dezaten.**

Konfinamendu-aldian zabaldua kontuan hartutako erreferentzia ugarik agerian uzten dute gure **ikasleen emozioen arloari** erreparatu behar zaiola, tutore-akonpainamenduari, autonomia pertsonalaren konpetentziari eta ikasten ikasteari arreta jarriz, baita inklusibotasunari eta dibertsitatearen tratamenduari ere.

Zeharkako konpetentzien garapena lantzeko, plangintzan proposamen didaktiko berri baten ezarpena sartuko da: *Gizarte- eta emozio-arloa eta talde-kohesioa lantzeko proposamena: ikasitakotik abiatzen den bide bati heldu*. Proposamen horrek jarraipena ematen dio 2019-20 ikasturtean egindako lanari: *Osasun-larrialdi egoerako zeharkako konpetentzien garapena. Egoeraren diagnostikoa eta hezkuntzako esku-hartze*, emozioen alderdiak lantzeko espresuki diseinatua, konfinamendu-aldiaren ondorioz behar-beharrezkoa izan baita ikasle guztiekin haiek lantzea, bereziki ahulezia handieneko egoeretan egon direnekin.

Bestetik, norbere eta tresnen edo/eta altzarien higieak ere arreta berezia eskatuko dute zeharkako konpetentzien garapenaren arloan, norbere autonomia eta parte-hartzea garatuz, birusaren hedakuntzaren aurrean errespetuzkoa eta aktiboa den gizarte-jokaera bat lortzeko. Alde horretatik, 2020-21ean ikasleekin landu beharreko material hautatu batzuk jarriko dira ikastetxeen eskueran.



## b) Prestakuntza-plana

Aipatu dugun lehen ikasturte berriari begira ezin besteko arlo sorta bat lehenetsiko dela ikastetxe guztietan eta, beraz, arlo horiek lehentasuna izango dute ikastetxeko prestakuntzaren antolakuntzan ere.

Ikasturte berri honetan, ikastetxeentzako oinarrizko prestakuntzan, hauexek sartzen dira: **aipatutako arloak lantzeko ikastetxeko, Berritzeguneko eta kidekoen arteko prestakuntza-formulak, suertatuko balitz ikastetxeetara joan ezin diren ikasleentzako erantzun efiziente bat egituratzeko eta, hartara, haien ikasketa-prozesua bermatzeko.**

**Prestakuntza Globalaren ekimenaren** testuinguruan, Lehen Hezkuntzako etapan aipatutako arloei lotutako proposamen berriak hartzen dira kontuan, baita *Haur Hezkuntzako Berriazko Egitasmo Esperimental*a esperientziari jarraipena ematea ere. Dena den, aurreikusitako moduluak bukatu ez dituzten ikastetxeek horiekin jarrai dezakete, betiere beren plangintza lehenetsitako jardun-arloak garatzearen mende jarritz.

### - Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia

Euskarazko hizkuntza-komunikazio kompetentzia garatzea arduratzen duen gaia dagaztelania-hiztunen inguruneetan bereziki; bertan, izan ere, ikasleek hautsi egin behar izandute egunero euskararekin zuten lotura trinkoa. Ondorioz, Berritzeguneetatik eta Iraletik proposamena egingo zaie ikastetxeei kompetentzia horretan aurreratzen arreta jartzeko.

Arlo horretan, Irale laguntza-zerbitzuaren bitartez, ahozko adierazpenari eta irakurketari lotutako ikastetxe barruko prestakuntza-ekintzako ekimenak jarriko dira martxan.

### - Kompetentzia digitala:

**Gaikuntza teknologiko** nahikoa segurtatu behar da, hala irakasleena nola ikasleena, lan-lokarri digital bat bermatzeko, beharrezkoa suertatuko balitz. Kidekoen arteko ikasketa bultzatzen duten estrategiak erabili behar dituzte, teknologia digitalak erabiltzera egokitzeko prozesua bizkortzeko, adibidez: online-saioak sortu, kudeatu, sustatu eta emateko prestakuntza-plataformak, ikasgela birtualak, bideo-konferentziak, ikastaroak sortzeko webguneak, irakasle laguntzaileen komunitateak, biltegiak eta bitarteko bilatzaile semantikoak, irakasleek sortutako materialak partekatze modua ematen dutenak.

Arlo honetan, nahitaezkoa izango da esku hartzea kompetentzia horretan irakasleek maila oso oinarrizkoa eta ikastetxearen garapen teknologikoaren maila eskasa izatearen ondorioz zailtasunak atzeman zaien ikastetxe guztietan.





Gainera, 18 berritzeguneetan prestakuntza-ikastaro bat emango da irakasleei zuzenduta, irakasteko kompetentzia digitalen oinarritzko maila garatzeko. Horretarako, etapako aholkularitzak dagokion ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin bilduko dira prestakuntza hori beharrezko izan dezaketen irakasleak identifikatzeko, aipatutako ikastaroa egiteko lehentasuna izan dezaten.

- **Programazioak curriculumaren eta haren ebaluazioaren funtsezko alderdietara egokitzea.**

Irailean, berritzeguneetako erreferentziazko aholkularitzek beren ikastetxeetako pedagogia-batzordeetan parte hartuko dute arlo horretan horiek dituzten beharrezkoak ikusteko eta, lan-plan bateratu bat diseinatzeko, haien programazioetan kontuan hartu behar dituzten funtsezko alderdiak identifikatzen orientazioa emateko, baita ebaluazio-irizpideak zein -adierazleak eta horiei lotutako irakaskuntza-ikasketa jarduerak hautatzen aholkularitza emateko ere.

Bestalde, berritzeguneen zonako mintegien eskaintzaren barruan, zeinak lan-ildo komuna mantendu eta areagotuko baitu eremu guztietan aldi berean jorratutako gaiekin, zuzendaritza-taldean mintegien garrantzia nabarmentzen da; izan ere, 18 berritzeguneetarako ezartzen diren koordinazio- eta prestakuntza-gaiez gain, *Ikastetxeek COVID-19aren aurrean dituzten Jarduera-Estrategiak* partekatzeke balio behar dute. Urteko Planean, baita **programazioak curriculumaren funtsezko alderdietara egokitzea eta horiek ebaluatzeko.**

Gainera, berritzegune guztietan mintegiak jarriko dira abian hizkuntza indartzeko irakasleentzat; beraz, ikastetxeetako zuzendaritzek mintegi horietan parte hartzeko aukera eman beharko dute.

Era berean, erreferentziazko aholkularitzek ikastetxeei lankidetzak eskainiko diete familiei prestakuntza antolatzeko kompetentzia digitalean, zuzendaritzek hala erabakitzen badute.

COVID-19ak piztutako osasun-krisi egoerak asalatu egin du ikastetxeen funtzionamendu normala eta, bereziki, **nabarmen eragin dio ikastetxeek 2019-2020 ikasturterako prestatu zituzten proiektuak eta programak betetzeari**, inongo kasutan ere ezin baitzen aurreikusi hezkuntza-jarduera presentziala bertan behera gera zitekeenik. Dena den, 2020-2021 ikasturtean, kontuan hartu behar da hori gertatzeko aukera.

Ikastetxeek hainbat hilabete aurretik egin ohi dute ikasturtean garatuko duten hezkuntza-ekintzaren plangintza neurri handi batean. Horregatik, Sailaren deialdiei begira eta hurrengo ikasturteko berezitasunak kontuan hartuz, beharrezkoa da ikastetxeek aipatutako deialdi horietan aurkeztu edo aurkeztuko dituzten proiektuak eta programak berrikusi eta birmoldatzea, irakaskuntza ez-presentzaileko eta presentzial txandakatuko errealitatera egokitzeko; are, baita irakaskuntza ez-presentzaileko aukera soilera, azken hilabete hauetan ezagutu dugun bezala, betiere lehen zehaztutako jarduteko lau arloak gogoan hartuz.

### c) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa



Aurreikusitako jarduerak bakarrik osasun-agintariek proposatutako neurriak bermatzen badira programatuko dira, ikasturtean suerta daitekeen edozein eszenategitan ere, eta gomendatzen da hartuko diren erabakiei arreta berezia jartzea, beti familien partaidetza eta lankidetzat lagun hartuta.

Helburuak, inplikaturako ikasleak eta irakasleak, eta egiteko data, ordua eta tokia zehaztuko dira. Erregistro hori OOG, Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskuan egongo da ikastetxean.

Egungo egoeran, ez da ikastetxeaz kanpora gaua igartzeko jarduerarik aurreikusi, adibidez, barnetegietan.

Erasmus+eko ikasleen mugikortasunari dagokionez, hala mugikortasun-proiektuetan (KA1) nola Elkarte Estrategikoen proiektuetan (KA2), Erasmus+ programan parte hartzeko, jarduera birtualen bidez hasteko aukera eskain dakieke, geroago atzerriko mugikortasun fisikoarekin konbinatzeko, egoerak horretarako aukera baldin badago (*Blended Mobilities*). Pertsona langileen iraupen laburreko mugikortasunari dagokionez, mugikortasun birtualeko aldi bat har daiteke aukeratzat, ezin besteko kasuak indarrean jarraitzen duen bitartean.

Bukatzeko, gomendatzen da ikasturte honetarako lehenetsi diren arloei lotutako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea (**euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia, konpetentzia digitala eta emozioen arloa lantzea**).

d) **Urteko kudeaketa-programa:** uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharko da (1998-09-14 eta 1998-09-23ko EHAA). Urteko Planaren zati hau prestatzea Zuzendaritza Taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio, OOGak onar dezan.

e) **Ikastetxeek COVID-19ren aurrean jarduteko estrategiak**

*2020-2021 Ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (sars-cov-2) aurrean Jarduteko Protokolo orokorrean jasotako proposamenari erantzuten dio Urteko Planaren atal berri honek.*

*Honako hau ezartzen du: "Ikastetxearen Urteko Planean, hezkuntza antolatzeko eta planifikatzeko oinarritzko dokumentuan, 2020-2021 ikasturtea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeentzat eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat antolatzeari buruzko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenetan jasoa. Atal horretan, protokolo orokor honetatik eta Laneko arriskuen prebentziorako neurrietatik eratortzen diren eremuak definitu eta jasoko dituzten zenbait estrategia jasotzen dira.*

*Egin beharreko jarduerak eta egon daitezkeen egoerentarako beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak aurreikusiko dituztenak, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitatearekin adostuta eta"*



Ildo horretan, 2. edo 3. agertoki baten plangintzan landu behar diren atalek *Laneko arriskuen prebentziarako neurrietan* jasotakoak osatzen dituzte, eta hezkuntzako esku-hartzearen antolaketarekin lotura handiagoa duten gaiiei buruzkoak dira, hala nola:

- Ikasleei arreta emateko jardunaldia antolatzea
- Ikasleak eta irakasleak ikastetxera joatea
- Aurrez aurreko elkartzeak antolatzea
- Jolas-saioak
- Ordutegia arreta zuzenarekin osatzen ez duten irakasleen antolaketa
- Irakasleen koordinazioa
- Aurrez aurreko eta online saioak
- HPBak dituzten ikasleei eta ikasle kalteberei arreta ematea
- Programazioa egokitzea
- Ebaluazioaren egokitzapena
- Komunikazioa familiekin

2020-21 ikasturterako IUPa **urriaren 30a baino lehen** jarriko da Hezkuntza Ikuskaritzaren eskueran, Sailaren webgunean dagoen *Hezkuntza Ikuskaritza/Dokumentuak* plataforma informatikoaren bidez.

Halaber, Txostenari (Memoriari) dagokionez, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskueran **irailaren 15a baino lehen** jarriko da plataforma berean.

## 1.2.- IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHP)

Kontuan hartuz euskarazko hizkuntza-komunikazio konpetentziari buruzko kanpo-ebaluazio proben emaitzetan oinarritutako gogoeta, ARRUE azterketak, EUSLE ikasgelak martxan jartzea eta 2019-2020 ikasturtean egindako irakurmenari buruzko probako esperientzia garatzeko IRALeren inplikazioa eta, ahozko adierazpena garatzeko sistematizazioaren inguruan (adibidez, Berbalapiko esperientzia), Soziolinguistika Klusterretik egindako beste erreferentzia batzuk, ondorio sakonak atera ditugu, eta EUSLE ikasgelak martxan jartzeko erabilitako dokumentuan azaltzen dira:

*“...hizkuntza-forma eta -egitura dagozkion komunikazio-funtzioekin erlazioan jartzen direnean eta komunikazio-estrategiak garatzen direnean, zabaldu egiten da hizkuntza ikasteari buruzko ikuspegia. Horregatik, ikasleen beharrianak deskribatu beharko dira, eta hizkuntza beharko duten egoerak, erabileraren funtzioak eta beharrezko hizkuntza-nozioak eta -formak aurreikusitakoak. Kontua da eraginkortasunez eta egoera zehatzetan esanahiak komunikatzeko ikasleek hizkuntza erabiliko duten gaitasun eta estrategiak garatzea”.*

Alde horretatik, beharrezkoa gertatzen da ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan Europako Hizkuntzen Markoko askotariko maileri lotutako ikasketa-estrategiak sendotzea. Hartara, aurreikusita dagoen bezala, ikasleek B1 maila erakutsi dezaten Lehen Hezkuntzako etapa amaitzean, eta B2 DBH amaitzean.



Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak aurreikusi behar du nola aurre egin hezkuntza-jarduera ez-presentzian familia-ingurunean euskaraz hitz egiten ez duten etapa hauetako ikasleek segur aski duten gabeziari; ikasle horiek, izan ere, ez dute ikasgelako eta ikastetxeko zuzeneko eta etengabeko hizkuntza-elkarrekintzarik.

### 1.3.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK

Europar Estrategia 2020rekin eta Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategiarekin bat etorriz, ikastetxeek era sistematikoan sartu behar dituzte jasangarritasun-irizpideak eta eskolabizitzako bitartekoen kontsumoa kontrolatu eta murrizteko neurriak.

### 1.4.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Ikastetxeek hezkidetza-proiektuak eta genero-indarkeriaren prebentzioko proiektuak garatuko dituzte, eta arlo guztietako curriculum-diseinuan eta -garapenean sartuko dituzte otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean islatutako hezkidetza-helburuak, baita *EAE-ko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023an adierazitakoak ere* (bertan, hezkidetzaren oinarriak zehazten dira).

### 1.5 BIZIKASI EKIMENA

Ustezko jazarpen-kasu batengatik esku hartzeko eskaera baten aurrean, kontuan hartuko da EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarren aurrean jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraibideei buruzko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen berria, Bizikasi ekimena ezarri ondoren xedatutako aldaketekin bat etorriz, eta 2020-21 ikasturteari begira, berrikuntza hauek izango ditu:

#### Antolakuntza eta jarrerari buruzko alderdiak

- Kontuan hartuz 2019-2020 ikasturteari era egokian bukaera emateko izan ditugun zailtasunak, 2020-21 ikasturtearen hasieran harrerari lotutako alderdi guztiak bereziki zaindu.
- 2020-21 ikasturterako ikasleen sarrera eta ongietorriaren plangintza egin eta, ahal den neurrian, aldabide seguru bat segurtatu tutoreak, irakasleak eta ikastetxea aldatzen denean.
- Ikasturte berriaren hasieratik, ikasleen askotariko gizarte- eta emozio-errealitateei eta -testuinguruei arreta enpatikoa jarri.
- Ikasleekin lotura afektiboa sendotu eta eskolako kidetza-sentimendua sustatu. Ikasleak emozionalki seguru sentitu behar dira eta, horretarako, lotura positiboa izan behar dute erreferentziazko pertsonekin. Lotura horrek sendatu eta konpontzen du, eta ikasleekin konexio emozionalera bideratua, hezkuntza-ingurunearekin uztartzen du.



- Erantzukizun partekatuaren eta autorregulazioaren garrantzia landu errealitate berrira egokitzeko orduan: gizarte-elkarrekintza zuzenerako arauak, ikastetxearen mugimenduak zuzentzen dituzten arauak, espazioen kudeaketa, etab.
- Erantzukizunak eta elkartasunak elkarren beharra dutela nabarmendu. Jokaera arduratsua onuragarria da taldearen ongizatean. Hori da gure kidekoekin elkartasun-jardunaren lehen urratsa.
- Ikasturtearen hasiera da elkarren arteko samurtasuna, maitazarrea, afektua, errespetua, laguntza eta zainketa errotzeko unea; laburbilduz, bizikidetzeta bizitzeko eta bizitzeko modu hori eskolara eramateko unea.

### Curriculumaren garapenaren alderdiak

- Sailak aurkeztutako Osasun-larrialdiari lotutako zehar-konpetentzien garapena proposamenaren bidez 2019-20 ikasturtearen amaieran egindako diagnostikoari berriz heldu: Egoeraren diagnostikoa eta hezkuntzako esku-hartzea (interbentzioa) ikasleek bizi duten gizarte- eta emozio-testuingurua ezagutzeko.
- Ikasturtea amaitu baino lehen informazioa biltzea eta diagnostikoa ontzea ezinezkoa izan den kasuetan, ikasle horiekin edo/eta familiekin komunikazioa lehenbailehen ezarri.
- Balorazioan atzemandako eta ikasturte-amaierako txostenean bildutako gizarte- eta emozio-beharrizanei erantzutera zuzenduta hezkuntzako esku-hartzea egin.
- *Gizarte- eta emozio-arloa eta talde-kohesioa lantzeko proposamena: ikasitakotik abiatzen den bide bati heldu* dokumentuan diseinatu eta bildutako proposamen didaktikoen plangintza eta ezarpenari heldu, eta haien garapen egokirako balioko duten talde-kohesioko dinamikak martxa jarri.

### Ziberjokaera eta ziberjazarpena

COVID-19aren konfinamenduaren ondorioz bizitako egoerak, lehenik eta behin, agerian utzi du eskola-jazarpen modalitate batek teknologia berriak erabiltzen dituela jazarpen-jokaeretan aritzeko. Ondorioz, ikastetxeetan egiten den behaketa areagotu behar da, bereziki gure ikasleekiko harremanak aurrez aurre gertatzen ez diren aldietan. Halaber, funtsezkoa da irakasleekin lankidetzan aritzea, batez ere tutoreekin eta BAT Lantaldeko kideekin eta familiekin, egoera horiek gertatzen direnean orientatu, lagundu eta esku hartzeko.

Fenomeno horri arreta jarri eta haren kontra hezibidez jokatzeko, baditugu:

- Ziberbullyingaren kontrako eskolan jarduteko protokoloa, 2019ko urriaren 11ko Hezkuntzako sailburuordearen Ebazpenak arautzen duen eskola-jazarpen egoeretan Jarduteko Protokoloa.



- Bizikasiko orrian, atzemateko eta jarduteko gidarako materialak.
- Kasuen ebazpen-prozesua kudeatzen laguntzen duten orientabide espezifikoak (prestatzen).

### **1.6.- PROTOKOLOA, HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTEKO, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKOA**

Ikasturtearen hasieran eskola-komunitate osoak protokoloa ezagutzen duela bermatzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Gainera, ikastetxeek ikasleen legezko arduradunei ikasturtearen hasieran bidaltzen dieten informazioan testu hau ere jarriko dute:

#### **Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.**

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

Ikastetxeetan horrelako egoerarik gertatuko balitz, Hezkuntza Ikuskaritzari haren berri eman beharko zaio.

### **1.7. IKASTETXEENTZAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEXUALEI EDO ARAUTIK KANPOKO GENERO- PORTAERA DUTEN IKASLEEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO.2**

Hezkuntza-komunitateak lan egingo du ikastetxeetan genero-identitatearen edo sexu-orientazioaren ondoriozko presio, eraso edo diskriminaziorik izan ez dadin.

Aipatutako protokoloa erabili beharko da ikastetxeei orientazioa emateko jaiotakoan esleitutako sexuarekin bat ez datorren sexu-identitatea duten adingabeei, gizarteak beren sexua dela-eta espero dituen genero-portaerak ez dituztenei eta horien familiei laguntzeko prozesuari buruz.

## **2. IKASLEAK**

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritza (2016). Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketan babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzak eta koordinaziorakoa.

<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritza (2016). Ikastetxeentzako protokoloa, ikasle transexualei edo arautik kanpoko genero- portaera duten ikasleei eta haien familiei laguntzeko.



## 2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA

Ikasle guztiek, bereziki hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren aurrean urrakorrak direnek, hezkuntzan sartzeko, jarraitzeko eta parte hartzeko aukera izango dutela bermatu behar du zuzendaritza taldeak, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini behar du, aukera-berdintasunean oinarritutakoa eta elkarbizitza positiboa sustatzen duena.

Euskadiko Eskola Kontseiluan egindako analisiaren eta ikastetxeetatik bidalita Ikuskaritzak jasotako datuen arabera, 2019-20 ikasturteko irakaskuntza ez-presentzialaren esperientziak adierazten du ikasle gehienek erantzun ahal izan diotela egoera ez-presentzial horri; hala ere, **ikasturtearen hasieratik arreta berezia eskaini behar zaie curriculumaren, harremanen, ekonomiaren, emozioen... esparruan eragin negatiboa jasan duten ikasleei eta familiei.**

Hezkuntza-inklusioa hezkuntzarako eskubidearen eskakizun bat da, eta, hori lortzeko, irakasle taldeak, **aholkulariarekin batera**, alderdi hauek aurreikusi beharko ditu:

- Programazioa egokitu beharko dute ikasleei esparru guztietan behar dituzten laguntzak emateko. Bereziki irakurtzearekin-idaztearekin (etapako hasierako mailak) zerikusia duten eta aldi ez-presentzialean agian areagotu egin diren beharrak hartu beharko dira kontuan.
- Ikasle bakoitzak etxean dituen baliabideei buruzko informazio zehatza eskuratuko dute laguntza osagarriak aurreikusi ahal izateko, berriz ere konfinamendua ezarriz gero harremana galtzeko arriskurik izan ez dadin.
- Ikasleen aniztasunari erantzuten dioten ikaskuntza inklusiboko metodologiak eta estrategiak erabiliko dituzte, ikasleek eta irakasleek elkarri eragiteko aukera emanez ICTak erabiltzearen bitartez.

## 2.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEAK (HLBP)

Ikasturte honetan **arreta berezia eskaini beharko zaie aurretik hezkuntza-laguntzako berariazko premiarik izan ez badute ere, orain, konfinamendu-egoeraren eta irakaskuntza ez-presentzialaren ondorioz, berariazko laguntza horren premia izan dezaketen ikasle guztiei.** Horrela, diagnostikatu edo baloratu gabeko egoera pertsonalekin zerikusia duten zailtasunak aurkitu ditzakegu, desgaitasunen batekin zerikusia izan dezaketenetatik hasi eta ikaskuntza-prozesuekin zerikusi handiagoa dutenetara. Behar horiek era askotakoak izan daitezke, zailtasunak dituztelako elkar eragiteko, lasaitzeko, mezuak ulertu eta sortzeko, irakurtzeko eta idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko, arreta jartzeko eta/edo oldarkortasuna kontrolatzeko; ikasteko erritmo mantsoagoa dutelako edo berariazko hizkuntza-arazoak dituztelako. Kasu guztietan lehentasuna du ikaslearen laguntza-premiak zein diren eta laguntza horiek nola emango zaizkion zehaztea, eta bi agertoki izango dira kontuan: irakaskuntza ez-presentzialarena eta erdi-presentzialarena.



Bestalde, orain arte eskolaren testuinguruan konpetentzia pertsonalak garatu ahal izan dituzten baina orain baliabide digitalak erabiltzeko, antolatzeko, arretari eusteko edo emozioak erregulatzeko zailtasun batzuk dituzten ikasleak ere izan ditzakegu. Ikasle horiek agian berez ez dira berariazko laguntza-premiak dituzten ikasletzat hartuko, baina ez dago zalantzarik era horretako zailtasunek arriskuan jar dezaketela euren aurrerapena, eta horiek ere, beraz, zehaztu egin behar dira, eta dagokion hezkuntza-erantzuna eman behar zaie.

Adierazitakoen moduko egoeren edo antzekoen aurrean, irakasle batek uste badu, arrastoren bat edo ebidentziaren bat duelako, ikasle batek aipatutako zailtasunak dituela, lehenbailehen horren berri eman beharko dio ikastetxeko aholkulariari, Berritzeguneko dagokion aholkulariaren laguntzaz ikasle horren beharretara egokituko den **jardun-plan pertsonalizatu** bat abian jartzeko. Balorazio psikopedagogikoa edo aparteko curriculum-neurriak (curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuak, curriculum-a zabaltzekoak edo Gela Egonkorren curriculum-proiektua...) eskatzeak erraztu egingo du hezkuntza-erantzun egokia ematea, eta gelan edo gelatik kanpora hartzen diren berariazko neurriak zailtasun horietara egokitu beharko dira eta ikasle horiekin lan egiten duten irakasle arrunt guztiek eta laguntzako irakasle guztiek ezarri beharko dituzte.

**a) Curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GECp) aurkezteko epeak**

- Ikastetxeko zuzendaritzak **urriaren 19a** baino lehen igorriko ditu dagokion proposamenak.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak **azaroaren 9a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 30a** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak **abenduaren 7a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei curriculum-egokitzapena edo Gela Egonkorren Curriculum Proiektua onartuta dagoen ala ez; hala, **abenduaren 15a** baino lehen, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei idatziz jakinarazteko, ebazpenaren kopia erantsita.

**b) Lehen Hezkuntzan dauden adimen-gaitasun handiko ikasleentzat curriculum-a zabaltzeko egokitzapenak aurkezteko epeak**

- Ikastetxeko zuzendaritzak proposamena **urriaren 19a** baino lehen tramitatuko du.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak **azaroaren 9a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 30a** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak **abenduaren 7a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei neurria onartuta dagoen ala ez; hala, **abenduaren 15a** baino lehen, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei idatziz jakinarazteko, ebazpenaren kopia erantsita.





**c) Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatzeko epeak malgutzeko eskaerak aurkezteko epeak**

- Etapa hasi aurretik, ikastetxeko zuzendaritzak eskolatzea aurreratzeko edo eskolatzeko epeak malgutzeko proposamena bideratuko du **maiatzaren 28a** baino lehen.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak **ekainaren 4a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **ekainaren 11** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak **ekainaren 17a** baino lehen bideratuko du dokumentazioa.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak **ekainaren 22a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei proposamena onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei jakinarazteko **ekainaren 25a** baino lehen, ebazpenaren kopia erantsita.

**d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak curriculumean sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak**

Ikastetxeek Berritzegunearen bitartez eskatuko dituzte baliabide materialak, eta horretarako HPBko aholkularitzak, terapeuta okupazionalarekin eta/edo entzumen-arazoetarako koordinatzailearekin batera eta inplikatura dauden gainerako profesionalekin lankidetzan, dagokion ebaluazio psikopedagogikoa egingo du.

Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari horren berri emango zaio, eta honek lurralde osoko beharren eskaera bateratu bat bidaliko dio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Hezkuntza Bereziaren ardura duenari. Berritzeguneko beharrak aztertuko ditu, eta baliabide-proposamena bidaliko dio Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari **apirilaren 9a** baino lehen.

Ikastetxearen ardura izango da maileguan emandako materiala mantentzea, eta egoera onean itzuli beharko du (horretarako, konpromiso hori zehazten duen agiri bat beteko da). Curriculumean sartzeko behar diren materialen kostua 150 eurotik beherakoa bada, ikastetxeak berak ordainduko du.

Edonola ere, eta kautela orokor gisa, behar bezalako arreta eskaini beharko zaie 2019-2020 ikasturteko azken hiru hilabeteko konfinamendu-egoeraren eta irakaskuntza ez-presentzialaren ondorioz zailtasunak areagotu zaizkien edo beste zailtasun batzuk sortu zaizkien eta berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleei.

Laguntza-premiak zehaztu ondoren, azpimarratu behar da lehenespenez **egokitzapen arrunt guztiak erabili behar direla, ahal dela, unibertsalagoak direnak eta antzeko egoeretara hobeto moldatzen direnak barne direla**. Sailaren webgunean egoera pertsonal jakinen ondorio diren berariazko laguntza-premiak lantzeko orientabide baliagarriak dituzten argitalpenak daude. Agerikoa denez, proposamenak baino ez dira, eta egungo egoerara eta datorren ikasturterako aurreikusten diren agertokietara egokitu eta moldatu beharko dira.



Alde horretatik, Sailak laster jarriko ditu ikastetxeen eskura HLPBak dituzten ikasleekin jarduteko hainbat proposamen, *Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin jarduteko proposamen inklusiboak* izenburupean. Laguntza-zerbitzuetako profesionalek, berariazko laguntzako profesionalek eta hirugarren sektoreko profesionalek egindako proposamenak dira. Ahalegin handia egin da, eta espero dugu ikasle horiei erantzun egokia emateko lagungarria izango dela egoera berezi honetan.

Hala ere, eta agiria argitaratzen den bitartean, komeni da berariazko laguntza-premiak dituzten bi ikasle talderi buruzko zehaztasun batzuk ematea:

### **Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak**

Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako jarduera-planean aurreikusten zen 2019-2020 ikasturterako pilotaje bat egitea ***Gaitasun handiak dituzten ikasleak detektatu eta identifikatzeko protokoloa*** baliozkotzeko. Pilotaje hori diseinu-fasean geratu da etenda, eta espero da 2020-21 ikasturtean gauzatu ahal izango dela Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan antolatutako ekimen hori.

### **Egoera pertsonal edo eskola historia bereziak dituzten ikasleak**

Laguntza etxean ematen den kasuan, kontuan izan behar da esku-hartzea bertan behera geratuko dela 2. eta/edo 3. agertokietan jarduera presentziala bertan behera geratzen bada, eta, ondorioz, laguntza hori baliabide digitalen bidez eman ahal izatea aurreikusi behar da, gainerako ikasleen kasuan bezala.

### **Ikaslea eskolatzea eskolatzeko-prozesu arruntetik kanpo**

Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan, ikasleak onartzeari eta eskolatzeari buruzkoan (2018ko urtarrilaren 12ko EHAA), ezarritakoari jarraituko zaio.

EAEra iritsi berriak diren eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloan edo Lehen Hezkuntzan plaza bat behar duten pertsonen kasuan, ikastetxeak horretarako dagoen aplikazio informatikoaren bidez egingo dio eskaera Eskolatzeko Batzordeari, ohiko menuaren bitartez: Matrikula/Eskolatzeko Batzordea. Ikastetxeek familia guztiek egindako eskabideak tramitatu beharko dituzte, hautatu duten ikastetxea edozein izanik ere.

Berandu iritsi den ikasleak hezkuntza-laguntzako berariazko premiak baditu, Ebazpen honetan xedatutakoari jarraituko zaio.

*Eskola-eredu inklusiboaren eta kulturartekoaren barruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren 4.1 helburuari jarraikiz, hizkuntza-errefortzurako programa amaitu duten ikasle guztiek banan-banako jarraipen programa bat izan behar dute ondorengo hiru ikasturteetan.*



### 2.3. ARRETA GOIZTIARRA

*Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloan* adierazten da hezkuntza-eremuan zer prozesu jarraitu behar den eta zein eragilek parte hartu behar duten (familiek eta etapako irakasleek), zer tresna eta zer unetan erabili behar diren arreta goiztiarra emateko. Funtsean behaketan oinarrituta dagoen jarraipen horrek garapenaren desbiderapen nabarmenak antzematea erraztu behar du, egokiak diren hezkuntza-jarduketak ezartzeko eta, hala badagokio, beste zerbitzu batzuetarantz bideratzeko. Haur Hezkuntzako ikasle guztiek izango dute aipatutako jarraipena, salbuespenik gabe.

Behaketa horren emaitza eta ezarritako esku-hartzeak ikaslearen karpetan jaso beharko dira. Dokumentazioan gurasoek prozesu osoan izan duten parte-hartzea ere jaso behar da. Berritzeguneko etapako aholkularitzek jasoko dituzte datuak behaketa-eskalak egin eta hurrengo hilabetean.

Arreta Goiztiarraren Erakundearteko Batzorde Teknikoak ezarri eta Arreta Goiztiarraren Erakundearteko Kontseiluak onartutako protokoloak jarraituko dituzte hezkuntzaz kanpoko beste zerbitzu batzuetarako deribazio eta kontsultek. Nolanahi ere, deribazioak, funtsatuta egoteaz gain, ezarritako prozesua jarraituko du eta, ondorioz, hezkuntza-premia berezietako aholkularitzak ere izango du horren berri. Sailak deribazioari buruzko txosten-eredu bat jarri du ikastetxeen esku garrantzizkoa den informazioa bateratzeko eta haren erabilera errazteko (*Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Detekzio Espezifikoa*. 2020ko eguneratzea, argitalpen elektronikoa hemendik eskura daiteke: [hezkuntza.eus](http://hezkuntza.eus)

Ikasleak eta bere familiak Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Talde (AGET) baten arreta jasotzen badute, arreta hori koordinatu egingo da, betiere Arreta Pertsonalizatuko Planean ezarritakoari jarraikiz. Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGTB) adieraziko du plan hori.

AGET eta/edo AGBTekin datuak partekatu ahal izateko baimena berariaz eman beharko dute aurretik gurasoek edo legezko tutoreek (balorazio psikopedagogikoaren aurretik sinatzen duten baimenaren jakitun izan behar dute) eta bete beharko ditu abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta 2016/679 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalei eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Hezkuntza Ikuskaritzak garapenaren jarraipena gainbegiratuko du, aipatutako protokoloan ezarritakoarekin bat etorritik, eta hezkuntza-prozesuan egoki txertatzen dela zainduko du.

### 2.4. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO OINARRI OROKORRA

2018ko maiatzean jarri zen abian *Hezkuntza – Osasun mentalaren elkarlanerako oinarri orokorra*<sup>3</sup> eta bertan daude jasota zerbitzu horiekiko koordinazioaren arloan lortu diren adostasunak. Era berean, deribazio-ibilbideak, informazioa partekatzeko prozedurak, txosten-ereduak eta bi

<sup>3</sup> [1102018001c\\_elkarlana\\_hezkuntza\\_osasun\\_mentala\\_c.pdf](#)



sistemetako profesionalen arteko harremanei buruzko zenbait gomendio ere jasotzen dira, jarduera profesional egokia erraztu ahal izateko. Ikastetxeek eta Laguntza Zerbitzuek erraztu egin behar dute lankidetzarako oinarri horren garapenaren emaitzaren ondorioz arlo horretan ikasleek eta euren familiek arreta hobe jasotzea.

## **2.5. ESKOLA-ORDUTEGIA**

Egutegiari, ordutegiari eta jardunaldiari buruzko erreferentzia orokorrak Hezkuntzako sailburuordearen 2020ko ekainaren 12ko Ebazpenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2020-2021 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzako arautegia ematen duenean, ezarri dira.

## **2.6. IKASLEAK IKASGELARA BERTARATZEA**

Arreta berezia eskaini beharko zaio ikasleen hutsegiteak kontrolatzeko prozedurari; izan ere, 2019-2020 ikasturteko azken hiru hilabeteko konfinamenduan eta irakaskuntza ez-presentzian ikaskuntzarekiko motibazioa gutxitu izanak bereziki urrakorra den ikasleen kasuan absentismoak gora egiteko arriskua ekar dezake. Hori dela eta, aholkatzen da ohiko absentismo-ereduak egoera berriarekin alderatzea, lehenbailehen hartu ahal izan daitezkeen behar diren neurriak bai familiekin bai ikaslearekin berarekin.

2. edo 3. agertokira iristen bagara, absentismo presentzialaren berri ez ezik, ikaskuntza-prozesua behar bezala jarraitzen ez direla ari edo prozesuari jarraitzeko zailtasun nabarmenak dituztela uste den ikasleen berri ere emango da Hezkuntza Ikuskaritzak ezarritako prozedurari jarraituz.

Horretarako, NOTAK ETA HUTSEGITEAK aplikazioan egokituko den atal batean emango da horren berri, bai eta egoerarekin zerikusia izan dezaketan arrazoien berri ere.

## **2.7. ERLIJOA**

Erlijio katolikoa ikasgaia izango da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan, eta ikasgaia nahitaez eskaini beharko dute ikastetxeek eta hautazkoa izango dute ikasleek.

Beste erlijioak Espainiako estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Juduen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak-akordioekin, eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioekin bat etorritik irakatsiko dira.

## **2.8 IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK.**



Ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesua abenduaren 22ko 237/2015 Dekretuan (2016-01-15eko EHAA) eta abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan (2016-01-15eko EHAA) dago araututa.

Ikasturte honetan kontuan izan beharko da zer eratako neurriak, protokoloak eta erremintak dauden aurreikusita ikasleak ebaluatzeko baldin eta ikasturtea berriz etengo balitz.

Curriculumeko oinarrizko alderdien agirian oinarrizko elementuen erreferentzia ematen da esku-hartzea, behar izanez gero, egokienak direla uste den helburuen, edukien, ebaluazio-irizpideen eta adierazleen bidez bideratu ahal izateko.

Hori dela-eta, ikasturte berrirako berriazko esparruetako bat curriculumeko oinarrizko alderdiak identifikatzea eta horiek ebaluatzea da, eta, horretarako, diziplinarteko diseinuen eta zeharkompetentziak indartzearen aldeko apustua egiten da, ikastetxeetan modu aktiboan parte hartzearen bidez euren autonomia eta premia zehatzak kontuan hartuta, Euskadiko Eskola Kontseiluak berak aholkatzen duen bezala.

Beharrezkoa da euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian eta kompetentzia digitalean emaitzak hobetzearen aldeko apustua egitea. Lehenengo kasuan euskara delako ikaskuntzarako hizkuntza eta eragin zuzena duelako kompetentzia guztiak lortzean; bigarren kasuan, berriz, onartezina delako arraila digitalak hezkuntzan aukera-berdintasuna eragozte.

Helburu horiek baldintzatu egingo dituzte lortu ez diren helburuak ebaluatzeko, kalifikatzeko, mailaz igotzeko eta berreskuratzeko prozesuetan erabiltzen diren prozedurak eta erreferentziak, eta erreferentzia izango dira bai prestakuntzarako bai irakasleak koordinatzeko eta arlo horretan irakasleek erabakiak hartzeko.

Irailean hasierako ebaluazio bat egin beharko da ikasleen abiapuntua identifikatzeko, eskuratu ez dituzten kompetentzietako batzuetan laguntza emateko edo horiek berreskuratzeko edo lehendik eskuratutakoak (eta 2019-20 ikasturterako berriz programatu diren oinarrizko elementutzat hartu direnak) sakontzeko, ikasturte berrirako planteatutako helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko. Hasierako ebaluazio horren esparruan, ikasturte amaierako ebaluazio-txostenak ezinbesteko baliabidea izango dira ikasle bakoitzari buruzko informazioa kontrastatzeko.

**2019-2020 ikasturtearen amaierarako Hezkuntza Planean jasota dago banakako txostenean adierazi behar dela ikasleak eskuratu ez dituen ezinbesteko ikaskuntzak, eta horiek berreskuratzeko plan bat sartu behar dela 2020-2021 ikasturtean garatzeko.**

Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritako autonomia pedagogikoarekin bat etorritik, ikastetxe bakoitzari dagokio helburuak zehaztea bere curriculum-proiektuetan eta ikasgelako programazioetan. Curriculumaren zehaztapen hori ikasleen eta testuinguruaren ezaugarrietara egokitu behar da, bai eta une bakoitzeko inguruabar zehaztetara ere. Esparru horretan, kontuan hartu beharko dira izan daitezkeen inguruabar bereziak eta horiek ikaslearen ebaluazio-prozesuan duten eragina. Ikasleek egindako aurrerapenei buruzko informazioa jasotzea oinarrizkoa izango da behin betiko ebaluazioari eta horrek ikasturtearen amaieran duen kalifikazioaren inguruko erabakiak hartzeko. Kontuan izan behar da ikaskuntza-ebidentzia horiek biltzeko ohiko tresnak



agian ez direla nahikoa izango, eta aztertu beharko dela komeni ote den beste informazio batzuk erabiltzea. Ikasturtearen amaieran gauzatuko den banakako txostenean ikasleak eskuratu ez dituen ikaskuntzei buruzko informazioa jasoko da eta horiek berreskuratzeko 2020-2021 ikasturtean garatu beharko den plan bat sartuko da.

**Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei** dagokienez, eta ebaluazio-prozesuak errazte aldera (lanak, proiektuak, azterketa, eta abar...), ikastetxeek hainbat neurri hartuko dituzte, hala nola horiek egiteko denbora gehiago ematea, enuntziatuak sinplifikatzea, testua ikasle horien premien arabera formatuan ematea, behar izanez gero baliabide teknikoak ematea, ahozko probak egitea proba idatziak egin ordez –bereziki dislexia edo hiperaktibitatea diagnostikatuta duten ikasleekin– edo probak ordenagailu bidez egitea, testuaren hasierako eta/edo amaierako irakurketa, azterketan laguntzako irakaslea egotea, ebaluazio-irizpideak aldatzea, eta abar; laburbilduta, irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasunerako eskubidea bermatuko dituzten neurriak.

Ikastetxez kanpoko zerbitzuen (Berritzegunea, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzeko zentroak (IBT), entzumen-desgaitasunari erantzuna emateko berariazko profesionalak...) mende badago azterketak edo kontrolak egiteko materialak egokitzea, material horiek formatu egokian eta horiek egokitze behar besteko denboraz emango dituzte, ikasleek probak ikaskideen denbora eta baldintza berberetan egin ahal izan ditzaten.

CNE duten ikasleei dagokien dokumentazio akademikoa Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideei eta *Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa* dokumentuari jarraikiz egingo da.

Euskal Hizkuntza eta Literatura jakintzagairako salbuespena uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan, Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzekoan, Dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Aginduan eta Hezkuntza Sailburuordetzak horretarako emandako urteko ebazpenetan ezarritakoari jarraituz izapidetuko da.

Gainerako irakaskuntza-alorrei dagokienez, Hezkuntza Sailak ez du beste salbuespenik aurreikusi. Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, Hezkuntza Berezia antolatzen duenak, xedatzen duenari jarraituz, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak izan behar du bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen hezkuntza, hobeto gizarteratzeko.

Nork bere gaitasunen neurrian, ikasle guztiek dute aukera irakaskuntza-arlo guztietako edukiak lantzeko, eskolatuta dagoen mailako irakasgai bakoitzeko curriculumaren egokitzapenak egin baitaitezke beharrezkoa bada.

Lesio edo gaixotasunen bat dela-eta, elbarritasun fisiko iraunkorrak edo iragankorrak dituzten ikasleek medikuen ziurtagirien arabera desgokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.

### 3.- IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK



Irakasleen eginkizunak 237/2015 Dekretuaren 20. artikuluan eta 236/2015 Dekretuaren 30. artikuluan jasota daude. Atal honetarako, bestalde, kontuan hartuko da Euskal Funtzio Publikoari buruzko legean jasotakoa, Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak jasotakoa (batez ere funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak, faltak eta zigorrak, kode deontologikoa, eta abar), bai eta indarrean diren lan-hitzarmenak eta -akordioak ere.

Irakasleek ikastetxean izango duten arduraldia astean 30 ordukoa izango da, eta horietatik gehienez 23 irakaskuntza-arduraldikoak izango dira (atsedenaldia barne dela), eta oinarritzko kompetentzia guztien bitartez ikasleen irteera-profila lortzea izango du helburu. Irakaskuntza-arduraldiko orduetan honakoak sartuko dira: curriculumaren irakaskuntza-orduak; ikasleekiko tutoretzakoak; hezkuntza sendotzeko orduak; ikasleek parte hartzeko IHPan onartuta dauden proiektuetarako jardueretako orduak; eta hezkuntza-arretako orduak. Gainerakoak ikasleen gurasoen arretarako, taldeko ikasleekin egin beharreko zuzeneko tutoretzakoak ez diren beste tutoretza-lan batzuk egiteko, koordinazio pedagogikoko bilerak zein klaustro- eta ebaluazio-bilerak egiteko, formakuntza-jardueretarako eta zuzendaritza taldearen ustez IHP garatzeko lagungarria izan daitekeen beste edozein jarduera egiteko erabiliko dira.

Irakasleen ordutegia *ordutegi koadroak* izeneko aplikazio informatikoan (DAE) sartuko da. Irakasle bakoitzaren ordutegian zehatz-mehatz jasoko dira egin behar dituen zereginak.

Hilaren 5a baino lehen, hilero, emango da irakasleen bertaratzearen berri horretarako ezarritako aplikazioaren bitartez.

### **3.1.- IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA**

2020-21 ikasturteko inguruabarrak kontuan hartuta, tutorearen eta taldearen arteko harremana behar adina sendotu ez den kasuetan taldeari, ahal izanez gero, aurreko urteko tutore bera izendatuko zaio.

Ikastetxeko zuzendaritzak beste ikasle talde batzuen irakaskuntza-jarduerak izendatu ahal izango dizkie euren ordutegia osatzen ez duten irakasleei, eta konfinamendu-egoera dela-eta desabantailan daudenak lehenetsiko dira.

### **3.2.- HEZKUNTZA-ERREFORTZUA.**

2020-21 ikasturtea argi eta garbi markatuko dute 2019-20 ikasturtean eragina izan duten inguruabarrek. Hezkuntza-mailaren eta ezarritako programazioarekin modu ez-presentzian jarraitzeko izan diren aukeren arabera, ikasturtearen azken hiruhilekoan sortu diren egoera guztiei ezingo zaie proposamen bakarrarekin erantzun, eta uste da, beraz, honako irizpideak izan beharko direla kontuan:



- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, euskarazko hizkuntza-gaitasuna (ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena), irakurketa-idazketa prozesua eta problemen ebazpenarekin zerikusia duten oinarrizko kontzeptu matematikoak sendotzea.
- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetan euskaraz ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena sendotzea.
- Informazioa bilatzea eta erabiltzea sustatuko duten diziplinarteko proiektuetan oinarritutako metodologiak garatzea. Lan idatziak, eztabaidak eta abar partekatzea.
- STEAM gunea sustatzea diziplinarteko proposamenen bidez matematikan, naturazientzietan, gizarte-zientzietan eta arte-hezkuntzan.
- Ikasleak gelako baliabide digitalen erabileran trebatzea, egoera ez-presentzialean behar izango lituzketen euskarriak, plataformak, sare sozialak, material didaktikoak eta abar erabiltzeko.

Ikastetxeak ordu-kreditu bat du, eta horri irakasle-kopuru jakin bat dagokio. Horrek, ikasleei eskolak emateko premiak betetzeaz gain, ezartzen diren lehentasunei erantzuna ematea ahalbidetzen du. Zuzendaritza taldeari dagokio ordu-kreditu hori kudeatzea, irakasle bakoitzari esleituz bai irakaslana bai haren ordutegi pertsonala osatzeko bete behar duen berariazko zeregina, eta ikasturte honetan ikasleei laguntzera eta errefortzua ematera bideratuko da.

Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Errefortzuko Plan bat ezarri behar du, eta bertan jasoko dira hezkuntza-neurriak, kolektiboak nahiz indibidualak, dagokion ikasle taldearen egoeraren arabera. Hezkuntza Sailak *Hezkuntza indartzeko plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarrizko hezkuntzan* izeneko dokumentu bat du, eta erreferentziazat erabili daiteke.

Gogoan izan behar da ikasturtean zehar ekitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza bultzatzeko bere gain hartutako konpromisoei erantzuteko, EAEko ikastetxe batzuek parte hartuko dutela hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko ekimenetan (**EUSLE gelak**, iritsi berriak diren ikasleentzat edo euskara irakasteko didaktika eta metodologia hobetzeko), baita gizarte-kohesioa lortzearekin eta oinarrizko gaitasunak hobetzearekin lotutako beste ekimen batzuetan ere (**Hamaika Esku, gizarte-eta hezkuntza-proiektuak** edo **MAGNET-ERAKARRI** proiektua).

**Bidelaguna Programari** dagokionez, irakaskuntza ez-presentzialeko egoera batean, **zuzendaritzak aukera eman behar du programako begiraleek ikastetxeko baliabide teknologikoak erabili ahal izateko, laguntzarekin eskola-ordutegitik kanpo jarraitu ahal izan dezaten eta dagokion irakasle tutorearekin koordinatuta jardungo dela bermatzeko.**

### 3.3.- ZUZENDARITZA TALDEA

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak osatuko dute zuzendaritza taldea. Zuzendaritza-kargu batek behintzat ikastetxean egon behar du ikasleen eskola-orduetan eta irakasleak ikastetxean egon ohi diren bitartean.





Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariek aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte bileraren baterako deia egiten bazaie-edo. Hileko hirugarren ostegunetan Berritzeguneetako zuzendaritzek dagozkien mintegietarako deia egingo diete.

### **3.4- ANIZTASUNA IKUSPEGI INKLUSIBO BATETIK LANTZEKO BERARIAZKO IRAKASLEAK**

Irakasle tutoreak antolatzen, zuzentzen eta koordinatzen ditu bere ikasleen hezkuntza-jarduera guztiak, eta bere ardura da, beraz, hezkuntzako esku-hartzea bideratzea.

Gogorarazi nahi dugu, programazio-elementu horietan guztietan, ikasle berarekin esku hartzen duten gizarte- eta osasun-arloko eragileekin nahiz familiarekin izan daitekeen harremana *Jardun Plana* izenekoan jasoko dela.

Hain zuzen ere, ikasle bakoitzaren premiak kontuan hartuta, laguntza pertsonalek barne har ditzakete beste profesional batzuk ere, behar bezain ezagunak izan arren aipatu beharrekoak direnak:

- **Irakasle aholkulariak:**

Ustezko 2. agertokiko irakaskuntza presentziala / online irakaskuntza mistoan edo 3. agertokiko irakaskuntza ez-presentzian, irakasle aholkulariaren lana ezinbestekoa da irakasle tutoreen eta irakasleen eta laguntzako profesional espezifikoen arteko koordinazioa bermatzeko. Lortu nahi da jarduerak koherenteak izatea hezkuntza-premia berezietako aholkularien orientabideekin eta ikasturte honetarako planteatutako proposamen espezifikoekin.

Aholkulariek aholkularitza eta laguntza emango diete irakasle tutoreei eta irakasle taldeei, eta, horretarako, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jardun-planak berrikusi eta egokituko dituzte eta erantzun indibidualizatua sustatuko dute, ahal dela baliabide telematikoen bidez (irakaskuntza ez-presentziala) eta tradizionalagoak diren beste batzuen bidez (irakaskuntza erdi-presentziala). Era berean, zuzendaritza taldearen eta irakasleen ekintzak Berritzeguneko erreferentziako aholkulariarekin eta HPBko aholkularitzarekin koordinatuko dituzte.

- **Entzumeneko eta hizkuntzako irakasleak.**

Tutorearekin koordinatuta eta hezkuntza-erantzunean esku hartzen duten gainerako profesionalekin lankidetzan esku hartuko dute jardun-plana ezartzean eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egitean, argi izanda euren zereginak modu presentzian nahiz online bete beharko dituztela aurreikusitako edozein agertokitan.

- **HPBetako laguntzako profesional bereziak.**

Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen eta gainerako hezitzaileen arteko lan koordinatua bermatu behar dute plangintzan (plana, ordutegia, etab.), koordinazioan eta ikasleen jarraipenean. Profesional horiek tutoreekin lankidetzan jardun beharko dute ikasleen kompetentziak garatzen



laguntzeko eta curriculumean sartzeko, irakasleek gidatuta eta lagunduta eta laguntza-zerbitzuek aholkatuta.

Ikasturtearen hasieran, eta ezarrita dauden jardun-planetan oinarrituta, beharrezkoa izango da irakasle tutoreak eta irakasle aholkulariak, ikaslearekin esku hartzen duten gainerako profesional hezitzaileekin batera, argi zehaztea bakoitzak zer eginkizun bete behar dituen, koordinatuta eta irakasle tutoreak gidatuta, agertokietako bakoitzean, jarduera ez-presentzialean nahiz presentziala eta online bidezkoa konbinatuko dituenean.

#### - **Hizkuntza indartzeko irakasleak**

Egungo testuinguruan, hizkuntza indartzeko irakasleen eginkizuna funtsezkoa da premiarik handiena duten ikasleek etapako curriculumean sartu ahal izateko beharrezko hizkuntza-kompetentzia eskuratuko dutela bermatzeko. Hilk lagunduko dio tutoreari ikasle horien jardun-plana gauzatzen eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten, eta curriculumarekin zerikusia duten edukiak eta materiala egokitzen, baita egoera ez-presentzialean ere.

### **3.5 ZIKLO/ETAPA TALDEAK**

Zikloko taldeek ziklo horietako irakasleen koordinazio didaktikoa egingo dute. Koordinatzailearen zuzendaritzapean elkartuko dira. Talde horien helburua izango da esku-hartzean koherentzia bermatzea programazioan egin den egokitzapenarekin bat etorriz.

Orokorrean, zikloko taldeak gainbegiratuko du arlo guztietako programazioa, eta salbuespen hauek izango dira:

- Maila bakoitzeko programazioaren egokitzapena aurreko mailako oinarritzko elementuak, **beharrezkoak direnak baina landu ez direnak**, sartzeko.
- Maila bakoitzeko programazioaren egokitzapena maila berrian behar bezala aurrera egiteko behar-beharrezkoak diren aurreko mailako elementuak **sendotzeko**.
- Programazioaren egokitzapena aurreko lehentasunen arabera adierazgarriak ez diren edo ondorengo mailetako programazioetan behin eta berriz sartzen diren elementu osagarriak kentzeko.

*Martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoz finantzaturako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan, besteak beste Haur Hezkuntzako Graduaren eta Lehen Hezkuntzako Graduaren unibertsitate-titulazioei dagokien practicuma egiteko betekizunak ezartzen ditu.*

Ikastetxeko zuzendaritzak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleei, irakaskuntza-arduraldiko orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak



deitutako bileretara joan daitezten. Hutsegite hori aurreikusita badago eta hutsegiteak ikasle talderen batean eragina badu, ikasketaburuari egokituko zaio aipatutako irakasleak talde horietako ikasleentzat planifikatu eta prestatu dituen jardueren ezarpena antolatzea.

Hutsegite horiek justifikatzeko, deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu behar dituzte irakasleek. Ezingo da ordezkorik eskatu hutsegite horiek betetzeko.

### **3.5.1.- Ziklo/etapako koordinatzaileak**

Ziklo/etapako koordinatzaileek bideratuko dute programazioen berrikuspena eta egokitzapena, iraileko hasierako ebaluaziotik lortutako datuak eta errefortzuko plan kolektiboaren diseinua kontuan hartuta.<sup>i</sup>

Irakasle taldea koordinatuko dute berriz ere irakaskuntza ez-presentzialeko egoera bat gertatuko balitz beharko liratekeen material digitalak prestatzeko eta pandemia berriz gertatuko balitz eta 2. eta/edo 3. agertokietara jo behar izango balitz erabili ahal izango liratekeen baliabide digitaletan trebatzeko astean saio bat egiteko.

Koordinazioa areagotuko dute Tutoretzako Ekintza Plana garatzearekin zerikusia duten alderdietan.

Gailu digitalik ez duten ikasleak erregistratuko dituzte eta ikasle horiei erantzuna emateko beharrezko kudeaketak egingo dituzte, egoera horrek espero den bezala aurrera egitea eragotzi ez diezaien.

Taldearekin batera ebaluaziorako jarraibideak zehaztuko dituzte, bai eta horiek gauzatzeko proba eta erregistro motak ere.

Familiekin koordinatuta jarduteko jarraibideak sustatuko dituzte, ikasleen jarraipena egiteko informazio-fluxu sistematikoa izan ahal izateko, esparru emozionalera edo akademikora lotuta.

Ikastetxeko ordutegian astean behar den denbora gordeko da ziklo taldeko kide guztiak elkartu ahal izateko.

Ikasketaburuak egoera hori kontuan izan behar du ordutegiak egiten dituenean. Bilera horietara joatea derrigorrezkoa izango da taldeko kide guztientzat.

Horretarako, ikastetxeek dagokion Berritzegunearen aholkularitza eskatu ahal izango dute. Berritzeguneek lehenetsunez hartuko dute beren gain aholkularitza hori. Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduteko helburuetako bat izango da curriculumaren garapena egungo araudira egokitzen dela egiaztatzea, eta, horretarako, programazio didaktikoak aztertuko ditu.

### **3.6 IRAKASLE TUTOREEN ZEREGINAK**



Tutore bakoitzak bere talde didaktikoko ikasleei orientazioa eta laguntza eman behar die, eta talde berean eskolak ematen dituzten irakasleak koordinatu behar ditu; era berean, komunikazio erraza lortu behar du familiekin eta/edo legezko tutoreekin, bi aldeei dagokien heziketa-lana partekatze aldera.

Ikasturtearen hasieran, irakasle tutoreak bere taldeko ikasle bakoitzaren hasierako ebaluazioa koordinatuko du, hezkuntza-laguntzarako edo errefortzurako izan ditzakeen premiak hautemateko. Era berean, ebaluazio horren ostean taldearen/gelaren egoerara egokituko du programazioa. 2. eta/edo 3. agertokietara jo behar izango balitz ere, eta ikasturtean hezkuntza-jarduera presentziala eta online bidezkoa konbinatu behar izango balira ere, IKTen esparruan prestatuta egon beharko du agertoki horri behar den fidagarritasunez aurre egiteko. Horretarako, etapako aholkularitzen eta IKTen laguntza eta zonaldeko Berritzeguneetan garatuko den konpetentzia digitaletako prestakuntza izango dute.

Hasierako ebaluazioaren ondoren, komeni da irakasle tutoreek irakasle taldearekin ebaluazio-saio bat planifikatzea ebaluazioan izandako emaitzak aztertzeko. Emaitza horiek izango dira behar duten ikasleen jardun-planak planifikatzeko eta programazioa diseinatzeko abiapuntua.

Era berean, ezin ditugu alde batera utzi konfinamenduan gure ikasle batzuek izan duten eta eskolatik esku hartzea eskatzen duten egoera sozial eta familiar zaugarriak. Irakasle tutoreak, banako tutoretza-lanaren bidez, halako kasuak identifikatu beharko ditu ikasleei behar duten laguntza psikologikoa eta emozionala eman ahal izateko.

Kasu horietan areagotu egin beharko da familiekin egiten den lana, eta, gainera, beste sistema batzuekin (gizarte- eta osasun-zerbitzuak, hirugarren sektorea...) koordinazioa eta lankidetzatza bultzatuko dira ahalik eta erantzun integralena eman ahal izateko. Alde horretatik, Sailak laster jarriko du ikastetxeen eskura jarduera-proposamen bat taldeko tutoretzan ikasleen itzulera ikuspegi emozionaletik lantzeko, jarduera ez-presentzialeko egoeraren ostean.

2. agertokian online bidezko jarduera eta jarduera presentziala konbinatu beharra izan litekeela aurreikusita, irakasle tutoreek, lehenik eta behin, ikasle bakoitzaren egoera aztertu beharko dute etxean dituzten baliabide teknologikoen ikuspegitik (gailuak eta konektibitatea), eta horiek erabiltzeko konpetentziak ere baloratu beharko dituzte maila horretan izan ditzaketan gabeziak nolabait ere konpentsatzeko.

Irakasle guztiek kontrolatu behar dute ikasleak euren klaseetara bertaratu diren, eta tutoreari hutsegiteen berri eman behar diete. Bestalde, tutorearen ardura da ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea.

Ikasketaburuak baliabideak jarri behar ditu familiek hutsegiteen berri ezarritako epean izan dezaten, eta ikastetxeko zuzendaritzak dagozkien jarraibideak emango dizkiete tutoreei.



Era berean, ikastetxeetako zuzendaritzek *notak eta hutsegiteak* aplikazio informatikoaren bidez helaraziko dizkiote Hezkuntza Ikuskaritzari ikasleen absentismoari buruzko datuak, horri buruzko zirkularrean ezartzen den bezala.

Ikasturte honetan, funtsezkoa da ikasturtearen hasieran familiekin koordinatuta jardutea, ikasleen hasierako ebaluazioaren ostean ateratako ondorioak haiekin partekatzeko eta ikasleei euren mailarako ezarritako helburuak lortzen eta oinarrizko kompetentziak garatzen laguntzeko konpromisoak adosteko.

Ikasturte honetan beharrezkoa izango da komunikazio hori sendotzea ere, seme-alaben eboluzioari buruzko informazioa emateko, ikuspegiak kontrastatzeko eta etxetik eman dezaketen laguntzan orientatzeko.

### 3.7. BERARIAZKO LANGILEAK

Ikus 2019-20 ikasturteko ebazpena honako hauetarako:

- **JANTOKIKO ARDURADUNA**
- **ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAREN ARDURADUNA**
- **JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMAKO IRAKASLEAK**
- 

Era horretako programetarako irakasleen jarduera batez ere antolatuko da programa bakoitzaren esparruetatik laguntza-premiak dituzten ikasleak artatzeko.

- **LAN KONTRATUDUN IRAKASLE ETA HEZITZAILEAK (2004ko MAIATZAREN 21eko EBAZPENA, 2004-06-17ko EHAA)**

Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen eta hezitzaileen (logopedak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBTk profesionalak, itsu-gorren bitartekari profesionalak, gorren koordinatzaileak) arteko lan koordinatua bermatu behar dute.

Profesional horietako bakoitzak eta guztiek parte hartuko dute berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleen jardun-plana planifikatzeko (plana, ordutegia, etab.), abian jartzeko, garatzeko eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanetan. Horrek eskatzen du irakasle tutoreak izendatzen dizkion eta bere lanbidearekin bateragarriak diren zereginak bere gain hartzea.

Irakaskuntza ez-presentzialeko edo erdi-presentzialeko 2. eta/edo 3. agertokietara jo beharra izan litekeela aurreikusita, lehentasunezko eskakizun profesionaltzat hartu beharko litzateke profesional guztien arteko lankidetzak. Ikastetxeko zuzendaritzaren ardura izango da langile horien ordutegia eta bertaratzea kontrolatzea.



#### - IBT-CRI LAGUNTZA-ZERBITZUA

Kasu honetan ere, laguntzako berariazko profesionalak izanik, euren hezkuntza-jarduera ikusmen-desgaitasuna duten ikasleekin esku hartzen duten gainerako profesionalekin koordinatu beharko dute. 2. edo 3. agertokietara jo beharra izan litekeela aurreikusita, profesional horiek beharrezko kompetentzia teknikoa izan beharko dute ikasle horien premia bereziei erantzuteko, ezin baitituzte erabili online bidezko irakaskuntzan ohikoenak diren baliabideak. Hezkuntza-erantzunaren irisgarritasuna zaintzea eta ikasle horientzat ziurtatzea izango da langile hauen eginkizun garrantzitsuenetako bat.

#### 4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK

Honako hauei buruzkoak:

- Ikastetxeetako osasunari eta segurtasunari buruzko araudia.
- Lan-arriskuen prebentzio-zerbitzua.

Prebentzio-zerbitzuak sortutako dokumentazioan jasotako orientabide espezifikoak kontsultatu beharko dira:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-eta-laneko-arriskuen-prebentzioaren-arloko-informazio-orokorra-eta-baliabideak/web01-a2hsprl/eu/>

Honako hauei buruzkoak:

- Ikastetxeetako eraikin eta instalazioen erabilera urteko planean aurreikusi gabeko jardueretarako
- Datu pertsonalen babesa
- Jabetza intelektuala ikastetxeetan

Informazioa 2019-20 ikasturtearen hasierako ebazpenean kontsultatu

**2. ZATIA****HAUR HEZKUNTZARAKO AGIRIA**

Agiria	Arloa
<a href="#">Haur Hezkuntza Etapa. Ikasturte hasierako orientabideak 2020-21. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Curriculuma

**LEHEN HEZKUNTZARAKO AGIRIAK**

Agiria	Arloa
<a href="#">Curriculumaren funtsezko alderdiak. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Curriculuma
<a href="#">Udako jardueren proposamena. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Curriculuma
<a href="#">Familiantzako orientabideak. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Curriculuma
<a href="#">Gorputz-hezkuntza. 2020-21 ikasturterako orientabideak. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Curriculuma

Agiria	Arloa
<a href="#">Osasun-larrialdi egoerako zeharkako kompetentzien garapena. Hezkuntza Saila (2020).</a>	BIZIKIDETZA
<a href="#">Gizarte- eta emozio-arloa eta talde-kohesioa lantzeko proposamena. Hezkuntza Saila (2020).</a>	BIZIKIDETZA

Agiria	Arloa
<a href="#">Protocolo general de actuación en los centros escolares de la CAPV frente al coronavirus (SARSCoV-2), curso 2020-2021.</a>	HIGIENEA eta OSASUNA
<a href="#">Modelo de protocolo de contingencia y actuación Departamento de Educación (2020).</a>	HIGIENEA eta OSASUNA

Agiria	Arloa
<a href="#">Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako orientabideak. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Eskola inklusiboa



<a href="#">Jarduera eta estrategia metodologiko inklusiboak. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Eskola inklusiboa
<a href="#">Aniztasunari erantzuteko plana. Hezkuntza Saila. (2020).</a>	Eskola inklusiboa
<a href="#">Iritsi berriak diren ikasleen hasierako ebaluazioa. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Eskola inklusiboa
<a href="#">Harrera-plana. Hezkuntza Saila (2020).</a>	Eskola inklusiboa
HLBP ikasleekin esku hartzeko proposamen inklusiboak. Hezkuntza Saila (2020) (IRAILA).	Eskola inklusiboa

Agiria	Arloa
<a href="#">Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak.</a> Hezkuntza Saila (2018)	Eskola inklusiboa
<a href="#">Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana.</a> Hezkuntza Saila (2019)	Eskola inklusiboa
<a href="#">Adoptatutako ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko erantzuna.</a> Hezkuntza Saila (2017).	Eskola inklusiboa
<a href="#">Adimen gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana.</a> Hezkuntza Saila (2019)	Eskola inklusiboa
<a href="#">Braille irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako gida. Ikaskuntzen programazio didaktikorako eduki eta materialen analisia eta egituraketa.</a> Hezkuntza Saila (2019)	Eskola inklusiboa
<a href="#">Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako II. Plana, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2016-2020.</a> Hezkuntza Saila (2016)	Eskola inklusiboa

(\*) Laguntzako beste agiri batzuk Hezkuntza Sailaren [web-orrian](#)

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 22a

Maite Alonso Arana  
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

<sup>1</sup> Programazio didaktikoak prestatzeko gida